



Gehigarria

53. zk.

(2015eko urrian)

Aurrera!

Berrikuntzaren eta Teknologia Berrien dibulgaziozko aldizkaria

Bulego Teknologikoak argitaratua

Informatika eta Telekomunikazioetako Zuzendaritza



AURKIBIDEA

- IKT konbergentzia-prozesua: BATERA ekimena (elkarrekin eredu berri baterantz)

IKT konbergentzia-prozesua: BATERA ekimena (elkarrekin eredu berri baterantz)


Gobernu Kontseiluak, 2015eko uztailaren 27an, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien arloko konbergentzia-prozesua izenekoa abian jartzeko ekimena onartu zuen.

Ekimen horri «**BATERA**» izena eman zitzaion, eta haren helburua IKT arloko konbergentzia-prozesu bat gauzatzea da, instalazioetara eta haiekin zerikusia duten beste elementu batzuetara mugatua (besteak beste, Azpiegiturak, Komunikazioak, Lanpostua eta Zerbitzu korporatibo bateratuak —AKLZ—)

BATERAk ezarriko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan datozen urteetan aplikatuko den kudeaketa-ereduaren ildo berriak.

Onartutako jardun-ildoak gauzatuko dituzten zerbitzuak eta proiektuak definitzeko, hainbat lantalde eta batzorde antolatuko dira, eredu berria definituz joan daitezten.

BATERAk epe ertain eta erdian gure antolaketan izango duen eragina kontuan izanik, artikuluko berezi hau idatzi dugu, haren garrantziaren eta ezaugarri nagusien inguruko xehetasunak emateko.





Informazioaren eta komunikazioen teknologiek (IKT) azken urteotan izan duten etengabeko eboluzioa dela-eta, beharrezkotzat jo da gogoeta bat egitea azken horiek Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) sektore publikoan kudeatzeko ereduari buruz, zerbitzuak ematerakoan sinergiak bilatzeko eta, epe ertainean, dirua aurrezteko, **eredu integratzaileago bat** abian jarritz.



HIZTEGIA

¹ DPZ: Datuak Prozesatzeko Zentroari dagozkion siglak dira; «Kalkulu Gune» ere deitzen zaio (ingelesezik: *Data Center*).

Erakunde baten informazioa prozesatzeko beharrezkoak diren baliabideak biltzen dituen gunea da.

Baliabide horiek, funtsean, honetan dautza: behar bezala egokitutako egoitza, ordenagailuak/zerbitzariak eta komunikazio-sareak.

[Iturria: Wikipedia]



Gai horri buruz, 2014ko urtarrilaren 14an izandako Gobernu Kontseiluan, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien arloko konbergentzia-prozesuaren inguruko Jarduketa Proposamenari buruzko txostena eman zuen Ogasun eta Finantzetako sailburuak.

Aipatutako konbergentzia-prozesuan, besteak beste, parametro hauek ezartzen ziren:

- ✓ Azterlan-proiektuaren esparruaren barruan Eusko Jaurlaritzaren administrazio-sare korporatiboa eta sektore-sareak sartuko lirateke, baita EAeko sektore publikoko erakundeek erabiltzen dituzten informatika-eta komunikazio-azpiegitura guztiak ere.
- ✓ Aipatutako azterlanak, gutxienez, alderdi hauei erreparatuko lieke:
 - a) DPZak¹ eta areto teknikoak finkatzea
 - b) Komunikazioen konbergentzia
 - c) Zerbitzu korporatiboen kudeaketa bateratua
 - d) ELZk (Erabiltzailearen Laguntza Zentroa) arrazionalizatzea
 - e) Lanpostuaren birtualizazioa
 - f) Inprimatze-zerbitzuak finkatu eta bateratzea
 - g) Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoa betetzea eta segurtasuna
 - h) Zaharkitzea

Geroago, Gobernu Kontseiluaren 2015eko

uztailaren 27ko Akordioan, proiektuak bere baitan hartuko dituen **arloak** ezartzen dira (Azpiegiturak, Komunikazioak, Lanpostua eta Zerbitzu korporatibo bateratuak), eta, horrez gain, Estrategia Batzorde bat sortzeko enkargua egiten du, helburu honekin:

«Sei hilabeteko epean dokumentu betearazle bat egitea, non zehaztuko baita zein proiektutan gauzatuko diren egindako gogoetaren barruan dauden programetako bakoitzerako konbergentziaren fase eta edukiak, betearazteko mugarrak eta epeak zehaztuta».

Ikus ditzagun, beraz, arlo horiek banan-banan.

ERAGINPEKO ARLOAK

Lau arlo aztertuko dira, honakoak:

➤ DPZ AZPIEGITURAK


Arlo honetan bilatzen den helburu nagusia hau da: proiektu honetan inplikaturik dauden sare sektorialetako eta erakundeetako **DPZen azpiegiturak eraldatzea eta modernizatzea**.

Egin den aurretiko azterketa batean konprobatu ahal izan denez:

- Badaude hainbat DPZ eta areto tekniko, eta fidagarritasun eta erredundantzia maila desberdinak dituzte.
- Ekipoek eta sareek zaharkitze-maila desberdina dute; izan ere, orain arte inbertsioa ez da parekatua izan.
- Azpiegitura gehiena kanpotik kudeatzen da (kasu batzuetan zerbitzu moduan, eta beste batzuetan kanpoko langileekin).

Modelo berriaren bitartez egoera honetara iritsi nahi da:

Instalazioak (DPZk eta areto teknikoak), zerbitzarien egitura, biltegiatzea eta *backup*-a finkatzea (baita zerbitzu partekatuak ere), inplikaturik erakundeetako bakoitzaren negozio-prozesu guztiei eutsiz.



Konponbide berri horren **abantaila** handienak hauek lirarteke:

- ✓ Eraginkortasuna hobetzea, instalazioen mantentzearen eta kudeaketa zentralizatuaren bitartez.
- ✓ DPZen eraginkortasun energetikoaren eta lekuaren aprobetxamenduaren ratioa hobetzea.
- ✓ Eraginkortasuna hobetzea, Azpiegitura berrituz: gaitasun handiagoko eta kontsumo txikiagoko zerbitzariak, biltegiatze-gaitasun handiagoko metro koadroko, etab.

«Zerbitzuak ematerakoan sinergiak bilatzea da helburua, eta epe ertainean dirua aurrezte, eredu integratzaileago bat abian jarritz»

- ✓ Erakunde txikiei sarbidea ematea, orain itxita dituzten azpiegitura eta gaitasunetara irits daitezten.
- ✓ Sinpletasun eta malgutasun handiagoko eskaintza instalazioen eta azpiegituraren eragiketa-ereduan, zerbitzu gisa kontratatzerakoan.

Informazio gehigarri gisa, adierazi behar da DPZen konbergentziarako proposatutako modeloak bi kokaleku jasotzen dituela, DPZ bakoitzak izango dituen bi aretoen arteko *aktibo-aktibo* zerbitzuekin. Zehazkiago, Segurtasun Sailaren sareko DPZ erabiltzea proposatzen da (Erandion dago, Bizkaian), baita Gasteizen (Araba) dauden bietako bat ere. Halaber, DPZ gehigarri bat izango da, Gipuzkoan.

Azpiarratu behar da modelo berria premisa batean oinarritzen dela:

Eusko Jaurlaritzaren informazioaren kontrolari eustea, betiere egungo beharriak eta etorkizuneko eboluzioak kontuan izanik.

Horrek guztiak **eraginkortasuna hobetzea** ahalbidetuko du, bai DPZ azpiegiturretan bai eragiketetan, konbergentzia-modelo berrirantz gerturatuz goazen neurrian.

➤ KOMUNIKAZIOAK

Arlo horren helburua kontratu bakar baten bitartez zerbitzu bakoitzerako hainbat hornitzailez

osatutako sistema garatzea da, baita zerbitzuen malgutasuna areagotzea ere, sare sektorialen eta erakundeen unean uneko beharriazetara egokitzeko.

Horren arrazoa zera da; orain arte hornitzaileen negoziatioak eta eskaintzak desberdinak izan dira zerbitzu berbererako. Horrez gain, sare sektorial eta erakunde bakoitza bezero desberdina da hornitzaileentzat, eta ez dago eboluziorako estrategia erkiderik.

Horregatik guztiarengatik, eta kudeaketa eta aurrekontuak optimizatzeko, egungo eredutik (zerbitzuen kontratazioan oinarritua) eboluzionatzea proposatzen da, eta Eusko Jaurlaritzaren kontratu bakar baten babespean lan egitea. Finean, komunikazioen kudeaketa bateratua egitea da helburua. Horren froga da egun Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritza izapidetzen ari den espedientea («EAEko Administrazioaren zenbait erakini telekomunikazio-zerbitzuak emateko Kontratuak»); izan ere, eredu berriaren konbergentziari dagozkion hainbat alderdi jasotzen ditu.

➤ LANPOSTUA

Sare bakoitzeko lanpostuen profilak aztertuta, konprobatu da konbergentziarako eta haien kudeaketa eraginkorragoa lortzeko aukera handia dagoela.

Hona hemen zenbaki batzuk, BATERA ekimenaren garrantziaren erakusgarri.

Kalkulatzen denez, 95.000 erabiltzaile baino gehiagorengan izango du eragina. Horrez gain, 90.000 mila gailu baino gehiago (*desktop*-ak eta eramangarriak) eta ia 35.000 periferiko (inprimagailua eta eskanerrak) kudeatuko direla aurreikusten da.

Aurretiko azterlanaren arabera, egungo lanpostuen ezaugarri nagusiak hauek dira:

- **Lanpostuak:** Lanpostuen profilen % 80 «estandar» kategoriakoak dira, eta horrek aukera handia ematen du horien eraketa, lizentzien erosketa, eta abar **homogeneizatzeko**.
- **Inprimagailuak:** Inprimagailuen % 91 «pertsoneko» edo «sarekoak» dira (ez funtzio anitzekoak), eta horrek agerian uzten du **finkatzeko** eta aurrezteko aukera handiak daudela, adibidez, erabiltzeagatik ordaintzeko ereduaren bitartez.
- **Mahai gainerako ekipoak:** Horien % 87 ordenagailuak dira, eta aukera handiak daude



HIZTEGIA

² Hodei hibridoa:

(«*hybrid cloud*» ingelesez).

Erakunde bati zerbitzu korporatiboak emateko, gaur egun hainbat eredu daude, eta bakoitzak bere abantailak eta eragozpenak ditu:

- Hodei publikoa
- Hodei pribatu bertuala
- Hodei pribatu kudeatua
- Hodei pribatua

Gure kasuan, inplikaturiko sareen ezaugarriak eta lortu nahi diren helburuak kontuan izanik, modalitate egokiena

«**hodei hibrido**» batean oinarritutako aukera izango litzatekeelakoan gaude. Beste zenbait ezaugarriaren artean, zerbitzatzen duen erakundeak berak administratzen duela aipa liteke.

Hodei hibrido bat ezarritzen hodei mota bakoitzaren arriskuak eta abantailak orekatu egingo dira. Horrez gain, eredu ebolutibo bat proposatzen da, teknologiararen, arauen, teknikaren eta legeen eboluzioari egokitu ahal izango zaiona.






Gehigarria

53. zk.

(2015eko urrian)



eramangarrien aldeko apustua egiteko eta, horrela, malgutasuna eta **mugikortasuna** areagotzeko.

➤ ZERBITZU KORPORATIBO BATERATUAK

Idazpuru honen barruan zerbitzu hauek sartzen dira:

- Posta elektronikoa
- Lankidetzeta-tresnak (ofimatika, informazio-biltegiatzea eta lan partekaturako konponbideak)
- Mezularitza bateratua (bideokonferentzia, ahotsa, web-eko bilerak)
- Nortasuna eta sarbideen kudeaketa (erabiltzaileen kudeaketarako azpiegitura eta edozein aplikazio informatikoren profilak)

Hasiera batean proposatutako konponbidea zerbitzu horiek guztiak «Hodei Hibrido²» batean oinarritzea da; izan ere, modu horretan hodei mota bakoitzaren arriskuak eta abantailak orekatu ahal izango dira: Hodei publikoak eta Hodei pribatuak.



GOBERNANTZA EREDUA

Eragindako arloak eta haien neurria aztertu ondoren (Azpiegiturak, Komunikazioak, Lanpostua eta Zerbitzu korporatibo bateratuak), agerian geratzen da prozesu osoaren gobernantza egokia izango dela BATERA ekimenaren atalik garrantzitsuenetako bat.

Horrela, inplikaturako arlo guztiek adierazi dute beharrezkoa dela **organo kudeatzaile** bat edukitzea, nean-nean erabaki dezan zein eredu jarraitu behar den (negozio-irizpide estrategikoetan eta eraginkortasun ekonomiko eta operatiboan oinarrituta).

Gai horri dagokionez, **organo kudeatzaile** gisa jarduteko erakunde egokiena **EJIE** (Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte Publikoa) dela erabaki da. Horretarako, hala ere, beharrezkoa izango da EJIEen «*eraldaketa-prozesu bat*» gauzatzea, esleitzen zaizkion ardura berriei erantzuteko eta orain dituen eskumenei eusteko.



Finean, EJIEk egun duen egitura egokitu beharko du, zerbitzuak ematerakoan eredu berriari erantzun ahal izateko. Are gehiago, inplikaturako sare guztiek ordezkaritza izango dute EJIE berritu horretan, eta erabakiak adostasunez hartuko dira.

Proiektuaren arduradunen arabera, arian-arian eboluzionatuko da eredu berrirantz, sare eta erakunde bakoitzaren eraldaketa-boladen arabera.

ONDORIOAK ETA HURRENGO URRATSAK

Eredu berriaren **helburu nagusia sinergiak aprobetxatzea eta izan litezkeen bikoiztasunak saihestea** da. Horretarako, beharrezkoa da orain inbertitzea, epe ertain eta luzean eraginkorragoak izateko. Izan ere, 8 urtean 90 milioi euro aurrez litezkeela kalkulatu da.

Proposatzen den IKT modelo berriak, gainera, aukera emango die inplikaturako sare guztiei zerbitzu hobek eta osatuagoak jasotzeko (adibidez, 24x7 zerbitzua eskaini ahal izango zaio [5 txanda] sektore publiko osoari), orain duten tamaina edozein dela ere (handiak edo txikiak).

Amaitzeko, jakinarazten dizuegu hurrengo urratsa sarean aldetik lantaldeetan parte hartuko duten pertsonak izendatzea izango dela.

Jarraituko dugu informatzen. □

